

Noaia!!!




Asteazkenean, Imanol
Muruaren hitzaldia



Gaztelekua

inauguratuko dute asteburu honetan

BERRIA egunkariarekin **DOAN**



Azaroak 5, larunbata,
karpeta eta lehenengo fitxak zure kioskoan
EGUNERO FITXA BAT; 20 ENTREGA.

Aukera ezazu, bizi euskaraz **berria**



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, Usurbil

ASEGURUA DUTEN FAMILIENTZAT:
Deitu **ZUZENEAN** gure ehorztetxera,
zerbitzua ematen hasteko denbora
murriztuz, izapide guztietaz arduratuko gara
eta **BONIFIKAZIO** berezi bat zuen polizan.

**ASEGURU GUZTIAK
BEILATOKI-TANATORIO GUZTIAK
ERRAUSKETAK
OSPITALETAN ERE ZERBITZUA**

**943 36 21 63 (24H)
660 388 652 - 608 16 77 92**

info@funerariagonzalez.es www.funerariagonzalez.es

Sarrereren salmenta



SERBIKULTXAK KULTXAZAINAK
943 00 12 00
www.kuxxa.net

Andoain azaroan **bastero**
KULTURGUNEA



Basterock Gauak
"Micky & Los Colosos del ritmo"
AZAROAK 5, Ostirala,
22:30h Auditorioan

Los Modernos
"FO"

AZAROAK 7, igandea,
20:00h Ekitaldi aretoan



Gari, Montxo eta Joselontxo
"Konfetti"
AZAROAK 14, igandea,
17:00h Auditorioan



ANDOAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Informazio gehiago: 943.303.540 www.andoain.org

Albisteak iruditan!!

Eguneroko gatazken aurrean nola erantzun ikasiz...

Eguneroko gatazka-erantzunetan trebatuz Eizeneko tailerra jarri du martxan Hitz-Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak. Izar Arregi Aizpuru psikologoak zuzenduko ditu tailer hauek.

HHko ikasleen gurasoentzat

Azaroak 3 / 17 / 24, 17:00etan, Agerialdeko edifizioan, Ingelerako klasean, 1. solairuan.

DBHko ikasleen gurasoentzat

Azaroak 3 / 17 / 24, 18:30ean, Agerialdeko edifizioan, Ingelerako klasean, 1. solairuan.

LHko ikasleen gurasoentzat

Azaroak 4 / 11 / 18, 17:00etan, Agerialdeko edifizioan, Ingelerako klasean, 1. solairuan.



URRIAREN 14AN "FAMILIAKO LISKAR TXIKI HANDIAK" IZENEN HITZALDIAN PARTE HARTU ZUTEN, IRUDIAN DIREN GURASOEK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
Telefono zenbakia: 943 36 03 21

E-posta: elkartea@noaua.com

www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpuru, elkartea@noaua.com

Aldizkari koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpuru, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainara Arnaz, Unai Aizpuru, Maria Jesus Urbiet, Begoña Rekondo, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Irati Portu, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Nerea Aizpuru, Alasne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Maider Makazaga, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai, Belmonte Auzo Elkartea eta Udarregi ikastola.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpuru.

Banaketa: Lourdes Kamino, Olatz Rezola.

Tirada: 2.800 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ERRAUSKETA HIZPIDE HERNANIN **5. OR.**

KRONISTAK KALEJIRAN **6. OR.**

KULTURALDIA ASTEAZKENEAN HASIKO DA **10. OR.**

PORROTX ETA MARIMOTOTS ZUBIETAN **12. OR.**

ASTELEHENEAN, ARTISAU AZOKA **13. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

ALIPROX
Kale Nagusia 10
943 361 182
USURBIL

**JUANTXO
BURDINDEGIA**
Zubiaurrenea 8
943 370 008



IDOIA TORREGARAI

Aurreneko “inpresiyuak”

Orain dela pare bat urte, bakarrik eta galduta zebilen katu txikia “salbatu” zuen amak. Miauka eta dardarka zegoen umezurtz txikia eskuetan hartu, tripaz gora jarri eta emea zela ikusi zuen. Gaztañako tradizioari jarraituz, Argi jarri genion grazia (txakurrei beti Bobi jarzen diogu, nahiz eta orain daukaguna bezala —Bobi VI, alegia— emea izan). Baserrian zehar libre hazteko asmoa zuenez, amak etengabe umezain ez egoteko pastilla batzuk ematea erabaki zuen. Eta halaxe, hilero-hilero gure Argik zintzo demonio hartu izan ditu angula kiloa baino garestiagoak diren pastillak. Udara hontaraino. Gaztañako terrazan tertulia egiten ari ginela atta, ama, alaba eta laurok, hortxe ikusten dut katua guregana hurbiltzen. Igurtzi batzuk egin zizkion amari eta aurreraxeago bere burua bota zuen eguzkitara, katuek bakarrik daukaten elegantzia horrekin, eta gimnasta erritmiko batek baino erraxtasun gehiagorekin, hanka gora igo eta hankatartea miazten hasi zen. Arretaz egon nintzaion begira. Eta hasieran irrifar zena, barre algara bilakatu zen minutu batera. Hantxe, txintxilika, antisorgailuak hartzen zituen gure Argik koxkobillo pare dotorea zeukan!! Amak kumetan ez zionez

“matrikula” nabaritu, emea zela ondorioztatu zuen. Eta guztiok horrela sinistu.

Izan ere, lehen “inpresiyuak” oso garrantzitsuak dira. Segundo batzuk besterik ez ditugu behar ezagutu berri dugun pertsona bat “katalogatzeko”. Konturatu gabe ia, hizketaldi bat hasi orduko, pertsona hori epaitu egiten dugu eta irudi horrekin geratzen gara. Duela urte batzuk, Harvard unibertsitateko bi psikologok ikerketa bat egin zuten irakasleen ezaugarriak aztertzeke. Hainbat irakasle klaseak ematen grabatu zituzten, eta ondoren, kanpoko pertsona batzuei grabazio horien 10 segundu erakutsi zizkieten, ahotsik gabe. Pertsona horiek irakasle horien pertsonalitatearen hainbat ezaugarri puntuatu behar zituzten. Grabazioak 5 segundura jeitsi eta beste pertsona batzuei erakutsi zizkieten, eta azkenean, bi segundura mugatu zituzten bideoak. Kasu guztietan, emaitzak berdinak izan ziren. Hau da, irakasle horiei buruzko “argazki mentala” lehenengo BI SEGUNDUTAN definitu zituzten ikerketan parte hartu zuen kaleko jendeak. Bi segundu bakarrik gustoko duzun edo ez erabakitzeke.

“Argi” ibili, beraz.

Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Luis Aranalde - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Ugaitz Agirre - Jose Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

Berdintasun Plana aurkeztu zen Artzabalen

Berdintasun Plana aurkeztu zen Baurreko astean, Artzabalen egin zen agerraldian. Ainara Uribe zinegotziak eta Clara Wolfram udal teknikariak eman zuten onartu berri den udal planaren berri.

Ainara Uribek egin zuen ekitaldiaren aurkezpena. Lehenik diagnostiko bat egin zela adierazi zuen udal zinegotziak eta diagnostikoari so eginez osatu zela udal plana.

Clara Wolfram udal teknikariak hartu zuen hitza jarraian eta, ezer baino lehen, plan honen helburu nagusiak nabarmendu zituen:

Berdintasunaren helburua txertatzea udal jardueran; Emakumeen autonomia eta partehartze publikoa / ahotsa indar-



PASA DEN ASTEAN AURKEZTU ZEN PLANA ARTZABALEN.

tzea; Udal jardueran lana, familia eta bizitza pertsonala uztartu ahal izateko neurriak hartzea, eta etxeko zein zaintza lanen banaketa orekatua sustatzea; Emakumeen arteko indarkeria prebenitzea, eta emakumeek egoera horretan jasotzen duten arreta hobetzea.

Zubietako

Garbitxikiko arazoak, konponbidean

Usurbilgo Udalak honako Uoharra kaleratu du, Zubietan kokatua dagoen Garbitxikiari lotuta: “Zubietako garbitxikian zeuden makina konpostagailuak, hainbat froga egin eta hauek funtzionamenduan akatsak dituztela ikusita, Kolvik enpresak atzera euren lantegira eramango ditu, azaldutako arazoak baliabide egokienekin konpon-tzeko”.

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

Otar-Goxo
Elkarguak

Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

TAXI

677 37 34 66
943 36 69 69

Jose Etxabe (24h) USURBIL

Kale nagusia, 10
Telf: 943 37 33 48
943 37 09 13

Orindégia - Gozotégia

LABE-GOXO

Hondakinak erretzeko interesak eta interesdunak

Zeinek erre nahi ditu hondakinak?" galderaren erantzun bila dabil Mikel Peruarena kazetaria. Izenburu bera daraman blog bat ere zabaldu du Internet-en. Burutu duen ikerketaren barruan, orain arte jasotako informazioaren berri eman zuen, joan den urriaren 21ean Hernaniko Biteri kultur etxean eskaini zuen hitzaldian.

Hernani Zero Zabor taldekoek antolatutako ekitaldian, Peruarenak argi zioen. Hondakinaren kudeaketari dagokionean, gaur egun bere esanetan, "bi aukera daude. Zero zabor edo erre". Hain zuzen, hondakinak erraustearen hautua egin dutenak ahotan hartu zituen Berria egunkariko kazetariak. Batez ere aipatu politika horren aldekoak nortzuk diren eta kudeaketa modu hau nahi izateko zer nolako interesak dituzten agerian utzi zituen solasaldian zehar.

Pausoz pauso bere ikerketaren nondik norakoak azaldu zituen. Azalpenak ematen hasi eta gaian sakontzen joan ahala, hizlariak atzean zuen arbelean marratzen joandakoak irudi argi bat erakutsi zuen; enpresa, banku eta erakunde publikoek osatutako sare zabal bat dagoela errauste planta egitasmoa bultzatu nahi dutenen atzean. Izen ezagunak, errauste planta eraikitzeko lehiaketara aurkeztu diren enpresak esaterako.

Errausketarekin, irabazi azkarrak "etxerako"

Hondakinak erraustea defendatzen dutenek, haien jarrera mantentzeko zer nolako arrazoiak izan ditzaketan aztertu zuen Peruarenak. Hondakinaren inguruan dagoen arazoarekin batera, hiru krisi mota aipatzen zituen hondakinak erre nahi izateko zergatien artean; ingurumen, energia eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) krisiak hain zuzen.

BPG-aren krisiari lotuta, irabazi azkarraren gizaratean bizi garela zioen eta bere esanetan, "erraustegiak inbertsio handiagoak dakartza, irabazi azkarrak eta etxean geratzen dira". Gaineratzen duenez, gaur egun "berdin du zer ekoizten den, kontua ekoiztu eta saltzea da". Energia krisia aipatzen zuen beste arrazoiaren artean, bere esanetan, "energia dagoen lekuetan ez dago kontsumorik", eta gure kasuan ger-



HERNANIKO HITZALDI ARETOA ENTZULEEZ BETE ZEN; TARTEAN ZIREN USURBILGO ETA ZUBIETAKO HERRITARRAK.

tatzen den moduan, "kontsumo lekuetan baliabiderik ez".

Irtenbide konplexuak, sinpleagoak egonik

Hondakinaren arazoa konplexua izanik, atez ateko bilketa bezalako irtenbide sinpleak planteatu beharrean, errausketaren aldekoak konponbide konplexuagoak bilatzen ari direla zioen, beste arrazoiaren artean, teknologiarekiko liluragatik, hau da, "teknologiak dena konpondu dezakeenaren ideiatatik".

Eta hori erraustea Europako Batzordeak hondakinaren kudeaketari lotuta egian duen hierarkian azken aurreko postuan dagoenik, Peruarenak adierazi moduan, hondakinak kudeatzeko moduei dagokienez, lehentasunak Europa mailan hauek baitira: hondakinak murriztu, berrerabili, materialki berreskuratu, energetikoki berreskuratu eta azkenik, zabortegira garraiatzea. Aldiz, erraustearen aldeko eragileek hierarkia hori ez betetzeko zirikitu eta salbuespenak aurkitu nahi dituztela zioen.

Aurreikuspenak apurtzen

Peruarenak eskaintako informazioaren artean, datu bat. Foru Aldundiak Gipuzkoako hondakinaren sorrerak gora egitea aurreikusten du 2012ra arte, gero egonkortze aldera jotzeko. Baina Peruarenak zioenez Gipuzkoan sortutako hondakin kopuruak behera egin du jada, "Foru Aldundiak aurreikusitakoa baino %12 gehiago egin du behera".

Informazio gehiago kaleratzen joango da datozen hileotan Internet-en, helbide honetan: www.erraustu.wordpress.com

Hiru enpresa talde aurkeztu dira, errauste plantaren lehiaketara

Joan den ostegunean proposamenak aurkezteko epea agortu ostean, hedabideek hurrengo egunean berri eman zutenaren arabera, hiru enpresa talde aurkeztu dira Zubietako errauste planta eraikitzeko lehiaketara. Honakoak:

1. **taldea:** FCC SA, Serbitzu Elkartea SL, Altuna y Uria SA, AE&E Inova SA.

2. **taldea:** Befesa agua SAU; Thyssenkrupp Xervon Energy GMBH, VAT; Befesa Gestión de Residuos Industriales SL, Novergie SA, Contrucciones Galdiano SA, Antzibar SA.

3. **taldea:** Sener Ingenieria y Sistemas SA, LKS Ingeniería (MCC), Construcciones Amenabar SA.

Iragarria dagoenez, datorren urtarirlean jakinaraziko du Gipuzkoako Hondakinaren Kontsurtzioak lehiaketako irabazlea nor den.

KALEZAR

INMA BALDA

Lanak bukatu gabe



Udazkenean erabat sarturik, ahaztuta dauzkagu udako egun haiek... Ikasturteari hasiera ematen zaionean, urtarrilean urteari bezalatsu, asmo eta gogo berrituak sentitzen gara, egitasmo berriei aurre egin ahal izateko indarberrituta. Zer esanik ez, udara hasterako, alde zuzeneko lanak bukatu gabe, itxita, amaituta utzi bagenu!

Kalezarretik gora Igarako bidea hartu eta autopista azpiko zubipera hurbiltzen bagara, norbaitek udako lanak bukatu gabe utzi dituela ohar gintezke. Bestela, nola ulertu bidearen txikizioa, nola onartu hormigoitik zorrotz, tente eta mehatxagarri ateratzen diren burdinak?

Eta trafiko seinaleei kasurik eginez gero, ezin al dugu kotxez joan zubipe aldetik gasolindegia aldera doan bidetik, norabide horretan, hain zuzen ere?

Bai, norbaitek ez ditu udako lanak egin eta kezketan jarriak gara, pentsatuz ikasturtea errepikatzen ariko dela eta ondorioz, datorren urteko udarako utziak izango dituela errepide berriko lanak bukatutzat eman ahal

SANTUENEA

PAKO AGUDO

Lanen amaiera, gertuago



Gaur niri egokitu zait auzoaren berri zuenganatzea eta egia esan, oraingoan albiste nagusia begi aurrean azaltzen zaigu auzoko edozein aldeetara begiratuta. Hobe ondo begiratzea gainera, bestela zulo batean erori edota hesi baten kontra jotzeko arrisku galanta dago eta!

Horrelako arazoak ekarri dizkigu auzo berritze lan hauek. Oraingoan auzoa hankaz gora jarri digute eta denborarekin ohitu egin garen arren, ez da oso eroso izaten kaleetatik ibiltzea edota kotxearentzako aparkalekua bilatzea.

Denboran atzera asko jo behar dugu Santuenean horrelako konponketa bat gogoratzeko. Obrak beti obrak direnez, hautsa, zarata, ur mozketak, ezin ekidin.

Denok nazkatu gara dagoeneko baina aurrean Olentzerok ekarriko digun auzo berriak, zaratak, hautsak eta zuloak ahaztarazi egingo ditu. Lan egoera zein den jakinda gainera, poza ere ematen du gertuko jendea bertan lan egiten ikusteak.

Beraz, pazientzia pixka bat eduki. Geroz eta gutxiago falta da eta. Hasi palak eta pilotak erosten, frontoia ere martxan dugu eta!



izateko.

Hitz hauei lagunduz doala argazki hau egunkari nagusietan ateratzeko txokorik aurkitu ez eta hemen aukera bat ematen baitzaio.

Argazkian argi ikusten da orain arte aipatu dudana. Irudian, atzealdean A-8 autopista eta, aurrerago, bidean aurrera jarraitzea debekatzen duen trafiko seinalea. Lurrean begi bistan, zulo eta burdin zatiak.

ATXEGALDE

MA^A JESUS URBIETA

Zenbait auzokideren ezustea

Egunak gaua dakar eta honek beste eguna, eta gero astea eta hilabetea, eta konturatzerako urtea aurrera daramagu. Gaietan dugu Santu Guztien Eguna, azaroaren 1a, eta begiak hilerri aldera jarri behar. Gune hura txukundu, hara oroigarri bat eraman edo lorez apainzeko garaia da hau. Hildakoak nor bereak gogoratzen ditugu eta bisita-txo bat egiten zaie, aurretik joan diren familiako senide eta lagun, edo ezagunei. Urtean behin bada ere, loreto-kietan aukera handiak jartzen dituzte; lore-sorta dotorez beteta daude, ikusgai, urtero bezala.

Gaia aldatuz, duela gutxi sekulako sustoa izan dute auzoan. Zenbait auzotarrek goizean lanerako etxetik jaitsi direnean haien autoak, kristalak apurtuta bilatu dituzte, kaset eta irratiak falta zituzten bertan. Hau ustekabea eta inpotentzia gainean. Nonbait denek ez dute lo egiten gauean!

Bestetik, ehiztariak mendi aldera begira dabilta, ehiza gutxi omen dago eta badira perretxiko batzuk ere. Ia bilatzen dituzten beren ibilaldian, hau baita horretarako urte garaia.



AGINAGA

ANE MANZISIDOR

San Praixkuen errematea!



Kaixo guztioi!!! Dagoeneko pare bat aste igaroak dira San praixku jaiak amaitu zirenetik. Eguraldia nahiko ongi portatu zaigu aurtengoan, lehenengo asteburuan batik bat. Bigarrenen euri pixka bat egin bazuen ere, ezin izan zuen gure festarako gogoarekin, ezta giroarekin ere. A ze jendetza bildu zena larunbat gauean...

Bi aste igaro diren honetan, nahikoa izan da festetako ajeari aurre egiteko eta hurrengo parrandatxoan pentsatzen hasteko. Izan ere, San Praixku jaiak igaro badira ere, azken errematea falta zaigu agiñatarrei!!! Urtero bezala, oilasko biltzaitetako afaria egitea falta zaigu. Aurten urriaren 30ean bilduko gara soziedadean afaltzeko. Hemendik, oilasko biltzaitetan atera zineten guztiei gonbidapena luzatzen dizuet, datorren larunbatean 20:30-21:00ak aldera soziedadera gerturatzeko!!!! Ez oilasko biltzen atera zinetenoi bakarrik, baita jaiak antolatzen lagundu gaituzuen guztioi ere. Guztion laguntza eta parte hartzearekin jaiak aurrera eramatea samurragoa suertatzen baita. Hemendik mila esker guztioi!!!!!!

Honez gain, aipatu behar, San Praixkuak igaro badira ere, jai batzordekoak ez gaudela besoak gurutzatuta. Dagoeneko



hasiak gara hari batzuk mugitzen eta beste ekintza batzuk bada-rabilkizkigu buruan, hauen berri aurrerago izango duzue. Gaia erabat aldatuz, urriaren 27an DYA-koek elikadurari buruzko hitzaldi bat eskainiko dute Arrate Zahar egoitzan. Arratsaldeko 17:00etan hasiko da eta bi ordu ingurukoa izango da. Bertan gaur egungo elikadura prozesua eta honi lotuta dauden gaixotasunei buruz hitz egingo da. Hemendik, guztiok animatzen zaituztet hitzaldi honetara.

KALEBERRI

ANA URDANGARIN

Amuletoak



Bueltan gara jada, oporrak bukatu dira azkar batean bukatu ere. Egunerokotasunean sartuak buru belarri eta nahiz eta ez onartu nahi izan gure mundu errealean gelditu ere egin gabe. Guztiok ditugu gogoko momentu erlaxatuak izatea, gure barruko har txiki hori asetzeko abenturaxoak bizitzeko denbora.

Garrantzizkoa da eten hori gure bizitzetan, erreflexioak egiteko garaia beraz. Aspalditik piztu zitzaidan bidaietan murgilduta ibiltzeko gogoa eta geroz eta gehiagora doa gauza, esan liteke droga baten pare bihurtu dela nire bizitzan. Denok dakigu kontinente ezberdinetan sinismen eta ohitura ezberdinak daudela eta nik pasioa dut honen berri izateko. Txundituta geratzen naiz, horrenbeste jendek amuletoetan duen sinismena ikustean.

Denok ditugu sinismen ezberdinak eta egia esan, beraiekin oso identifikatua sentitzen naiz aspektu honetan, sinismen handia baitut horrelakoetan eta sinisten dugun horrek asko laguntzen digu aldi berean!!! Zorte on guztiei ba, eta laster arte. Ondo izan.

ZUBIETA

DENIS ELORTZA

Zubliketa

Zubietako txirrindulariek hirugarrenez jokatu dute Hernani-Goizueta bizikleta-desafioa. Sailkapenean 2 taldek berdindu zuten eta, beraz, irabazle ugari: batetik, Xanti, Xabier Zaldua eta Unai eta, bestetik, Iker, Estitxu eta Asier. Zorionak denoi.



Hiru urte hauetan denetarik egon da: izan dira famili arteko apustuak eta bizilagunen arteko lehiak; ikusi ditugu bizikleta zaharrak zein karbonozkoak, mendikoak zein errepidekoak; izan dira eliteko txirrindulariak zein hasi berriak, zahar eta gazte, gihartsuak zein klenbuterolez beteak... Denetarik izan da baina badira urtero errepikatzen direnak: lautadan adar-jotze ugari eta goraka ixiltasuna nagusi, Goizuetara iristen beti Mikel Aranburu lehenengo, txalo-zaparrada handiena azkenentzat, bazkal-giro ederra, kafé eta kopa garaian sortzen diren erronka berriak...

Eta, horren haritik, Zubietako txirrindulariok badugu jada hitzordu berria: azaroaren 28an, igandez, plazan 10:00etan, Zubietako I. Bira, mendiko bizikletarekin. Animatu!

Gaztelekua, prest

Gazteek lokalaren egokitzapen lanetan parte hartu dute

Garai batean Gure Pakea zahar egoitza izandakoa gazteek bizi berritu dute eta horretan jarraituko dute aurrerantzean ere, Gaztelekua kokatzen baita bertan. Larunbat arratsalde honetan, urriak 30, Gaztelekuaren inaugurazio ekitaldia burutuko da. Zinta mozketaren ostean, gazteak erakarri dituen gunea bertatik bertara ezagutzeko aukera izango da.

Uda aurretik aipatu guneko erabil-tzaile izango diren DBH-ko ikasleekin harremanetan jarri ziren Gaztelekuan lanean diharduten bi hezitzaile. Gunea ere gazteen nahi eta beharretara egokitzaren joan dira hilabeteotan. Lehen jarduerak ere burutu dituzte; hala nola, uda partean egindako irteerak edota hormak margotu eta bestelako prestaketa lanak lokal barruan. Gaztelekua prest dute jada, eta ailegatu da ofizialki martxan jartzeko unea.

NOAUA! Zer moduz Gazteleku barruko antolakuntza lanak?

Itziar Areta. Gazteak elkar ezagutzen eta jolasten ibili ohi dira. Arau eta mugak ere jartzen ari gara; garbitasun arauak, txandak... Bestalde, proiektuak sortzeko lanetan gabilta. Edergintza edota bidegointza tailerrak, edota irratia sortzeko proiektua hor dago. Eguberrietako programa berezi bat ere prestatzen ari gara. Otsailean, hausnarketa burutuko dugu gure artean, gazteekin eta udal ordezkariekin. Gaztelekuak etorkizunean zer nolako martxa hartuko duen aztertuko dugu.

N. Zuen egitasmoak hiru fase dituela aipatu izan duzue. Zer unetan dago orain?

I. A. Bigarren fasean gaude, dinamizazioan. Irailaren 20 eta 21ean adibidez, Udarregi ikastolan izan ginen, gelaz gela DBH osoan Gaztelekua aurkezten. Ikasleek zer egin nahi zuten eta euren zaletasunen berri jasotzeko pin-



GURE PAKEAREN EGOITZA IZAN ZEN LEHEN, ORAIN GAZTEEN TOPALEKUA DA.

tzak banatu genituen eta banaka denei esortzeko gonbita luzatu genien.

N. Udal batzorde batean aurkezpen saioa ere izan omen duzue?

I. A. Neronek eta bi gazteek gure asmoen berri eman eta egindakoa azaltzeko argazkiak erakutsi genizkien udal ordezkariari. Ondo egon zen gazteak udal batzordean, antolakuntza prozesuan aktiboki parte hartzen ikus-tea. Gazteek euren iritzia ere azaldu zuten. Gaztelekuari lotutako bi alderdi positibo eta beste bi negatibo azpimarratu zituzten. Positiboak, egoki kokatua eta txikia izateko ondo antolatua dagoela, eta alderdi ezkorren artean, ordu gutxiz irekia dagoela Gaztelekua eta horregatik, batzuk ezin dutela joan. Gaineratzen zuten, lokalean jartzeko gauzak falta dira.

N. Udal ordezkariak zer zioten zuek esandakoei?

I. A. Udal ordezkariari gustatu zitzaizen gazteek antolakuntza prozesuan hasieratik parte hartu izana eta beraz, haiei dena egina ez ematea. Positiboki baloratu zuten, gazteak lokalaren egokitzapen lanetan parte hartzea. Baita udan burututako ekin-tzak ere, Gipuzkoa ezagutzen progra-

maren barruan. Zumaia, Zarautz, Donostia, Villabona eta Usurbilgo Gaztelekuetako gazte eta begiraleok hiru irteera egin genituen, Zumaia, Usurbil eta Donostiara. Udal ordezkariak baikortzat jo zuten udalerririk desberdinetako gazteek elkarren artean harremanak izatea.

“Toki itxi bat izateko beharra zuten gazte hauek”

NOAUA! Uda aurretik harremanetan jartzen hasi zineten gazteekin. Zer nolako harrera izan du Gaztelekuak euren artean?

Itziar Areta. Toki itxi bat izateko beharra zuten, egoteko toki bat. Neguari begira, estalita dagoen leku bat izatea faltan sumatzen zuten. Hasiera batean egoteko leku bat nahi izan arren, gerora, Gaztelekuetik egiten zaizkien proposamenak ere ondo hartzen dituzte eta gustura parte hartzen dute.

Hiru gune ditu Gaztelekuko egoitzak

Inaugurazio ekitaldirako egun gutxi falta zirela, Gaztelekuko instalakuntzetan osteratxo egin eta egokitu dituzten hiru gune nagusiak ezagutzeko aukera izan du NOAUA! aldizkariak. Honela osatzen da Gaztelekua.

Topagunea

Jolaserako ping pong edo futbolina izango ditu. Baita informazio gunea ere, arbela eta ordenagailuarekin. Sofak lasai egoteko edota mahaiak gazteekin biltzeko.

Sorkuntza gela

Proiektu zehatzetarako gunea izango da. Egitasmoak pentsatu eta sortzeko, norik zer egingo duen erabakitzeko tokia.

Bulegoa

Hezitzaileen kudeaketa lanetarako gela dugu. Baita, guraso eta gazteekin informazioa partekatu, aholkuak eman edota orientazioa eskaintzeko lekua.



JOLASERAKO PING PONG EDOTA FUTBOLINA DUTE ESKURA GAZTELEKURA HURBILTZEN DIREN GAZTEEK.

Ate irekien eguna, azaroaren 6an

Kuriositatea duen edonorentzat, zabalik egongo da Gaztelekua datoren astean. Gaztelekuan ate irekien goiza burutuko da. Aipatu moduan herritar oro gonbidatua dago hitzor-

dura. Gazteen biltokia ezagutu eta hezitzaileekin hitz egiteko aukera izango da, azaroaren 6an, larunbat goizez bi orduz, 10:00-12:00 artean. "Nahi duenak etor dadila gunea ezagutzera eta gurekin hitz egitera", adierazi du Itziar Areta hezitzaileak.

Gurasoak eta gazteak, gonbidatuta daude inauguraziora

Inaugurazio ekitaldiak gazteak libiliko diren bi eskenatokietan burutuko da. Frontoian lehenik pinata handi bat puskatuko dute. Itziar Areta Gaztelekuko hezitzaileak iragarri duenez, "pinata makila batekin puskatzen duenak, inaugurazio ekitaldiko zinta mozteko aukera irabaziko du". Eta gero, Gaztelekua barrutik ikustera. Askari eta guzti, instalakuntzak ezagutu eta gazteek orain arte egindako jardueren berri jaso ahal izango da, bertan jarriko

duen "Gaztelekua abian" izeneko argazki erakusketa baten bidez.

Hona hemen inaugurazio eguneko egitaraua:

URRIAK 30 LARUNBATA

16:30 Frontoian pinata.

17:00 Gaztelekuaren irekiera, zinta mozketarekin. Askaria eta gunea ezagutzeko aukera.

Nori zuzendua: gazteei eta gurasoei bereziki.

Antolatzailea: Gaztelekua.



URRIAREN 30EAN, ARRATSALDE PARTEAN EGINGO DA INAUGURAZIOA.

Kulturaldiaren lehen saioan,

Loiolan izandako elkarrizketak hizpide

Imanol Murua kazetariak eskainiko duen hitzaldiarekin hasiko da aurtengo Kulturaldia. NOAUA! Kultur Elkarteak sustatzen duen egitarau honen baitan, musika, antzerkia, zinea eta literatura izango dira gainontzeko osagaiak.

Loiolan hamabi bilera egin zituzten EAJ-PNV, alderdi sozialista eta Batasuneko ordezkariak. Lehena 2006ko irailaren 20an eta hamabigarrena eta azkena azaroaren 15ean. Aipatutako hiru alderdiak akordio politiko baten bila aritu ziren, etorkizuneko akordiorako oinarri politikoen inguruan, hain zuzen. Azkenean, ezinezkoa izan zen.

Bilera horiek abiapuntu hartuta, Imanol Murua Uria kazetariak 2006ko negoziazio prozesuaren kontakizuna egin du, "Loiolako hegiak" izenburuko liburuan. Jesus Egiguren, Arnaldo Otegi eta Iñigo Urkullurekin izandako solasaldi luzeak dira liburuaren kontakizunaren ardatz nagusia.

Imanol Murua, 'Salvados' telebista saioan

Jordi Evole aurkezle katalanak zuzentzen du "Salvados" telebista saioa, La Sexta katean. Duela bi aste, Azpeitian egon zen, Euskal Herriaren inguruko erreportajea grabatzen. Imanol Murua kazetaria izan zuen gidari Loiolako santutegiaren inguruan. Azken bake negoziazioen nondik norakoak azaldu zituzten "Loiolako Hegiak" liburuaren egileak, eta elkarrizketen aterpe izandako Arrupe Etxea bertatik bertara erakutsi zion. Laster emango dute erreportajea La Sextan telebista katean.

Imanol Murua kazetaria lehenago ikus eta entzuteko aukera izango dugu Usurbilen, datorren asteazkenean, azaroak 3, 19:30etik aurrera Sutegin.

AZAROAK 3, ASTEAZKENA
Imanol Muruaren hitzaldia
"Loiolako Hegiak", solasaldia
Sutegin, 19:30ean.



IMANOL MURUA KAZETARI ZARAUZTARRAK ZERESAN HANDIA EMAN DUEN AZKEN BAKE PROZESUARI BURUZ IDATZI DUEN LIBURUAREKIN.

"Debekatua dago oroitzea", dokumentala

Saturraraneko hondartzako erai-skin bat, emakumeentzako kartzela izan zen 36ko gerra ondorengo urte ilunetan. Hori da "Debekatua dago oroitzea" dokumentalaren hari nagusia.

Lan honetarako elkarrizketa pila bat egin zituzten egileek, baina batzuk baino ez zituzten dokumentalean sartu. "Katalunian egina zuten galdutako umei buruzko lan bat, eta haien

bidez egin genituen kontaktu batzuk. Emakume batzuk ez dute hitz egin nahi izan, eta beste batzuk bidean hil zaizkigu", adierazi zuen hedabideen aurrean Txaber Larreategik, dokumentaleko egileetako batek.

AZAROAK 5, OSTIRALA
"Debekatua dago oroitzea" dokumentala. Txaber Larreategi eta Josu Martinezen eskutik.
Sutegin, 22:30ean.



DONOSTIAKO ZINEMALDIAN ESKAINI ZUTEN DOKUMENTAL HAU.

“Greban gaude!” oihukatu ondoren, “Prest gaude!” antzezlanarekin bueltatu dira

Greban izan ziren duela bost bat urte edo. Sutegi ireki berritan izan ziren Urola aldeko alproja hauek, “Greban gaude!” izeneko antzezlanarekin. Indarrak batu eta “Prest gaude!” antzerki saioa eskaintzera etorriko dira datorren astean. Orduan egindakoa bezain umoretsua izango al da beste hau?

AZAROAK 6, LARUNBATA

Lakrikun Antzerki taldearen

“Prest gaude!” antzezlan.

Antzezleak: Gurutze Eizmendi, Alaitz Olaizola eta Idoia Uranga.

Non: Sutegin, 19:00etan.

Sarrera: Sarrerak 5 euro (Txiribogan, NOAUA!ko egoitzan eta egunean bertan). NOAUA!ko bazkideek 3 eurotan, Noaua!ko egoitzan eta aldez aurretik.



LAKRIKUN TALDEKO HIRU AKTOREAK, AZARDAREN 6AN SUTEGIN IZANGO DIRA.

“Ornitorrinkus”, Maialen Lujanbio eta Judith Monterorekin



Ornitorrinkus: musika garaikideak, musika esperimentalak eta bertsoak elkarrekin osaturiko hotsen eta ahotsen emanaldi berritzailea. Xehetasun gehiago, datorren asteko NOAUA!n.

AZAROAK 7, IGANDEA

Maialen Lujanbio & Judith Montero-ren

Ornitorrinkus, hotsa eta ahotsa

Sutegiko erakusketa gelan. 19:00etan.

“On-off”, Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberioaren eskutik



Yolanda Arrieta idazleak “Off-On” nobelaren aurkezpen musikatua eskainiko du Juantxo Zeberio pianojolearekin. Emanaldi honen xehetasun gehiago, datorren asteko NOAUA!n eskainiko ditugu.

AZAROAK 13, LARUNBATA

Yolanda Arrieta & Juantxo Zeberioaren

Off-On ikuskizuna, hitza eta musika

Sutegin, 19:00etan.

Larunbat honetan, Porrotx eta Mari Motots Zubietan

Larunbat honetan, Porrotx eta Mari Motots Zubietako frontoian arituko dira, arratsaldeko 18:00etan hasiko den ikuskizunean. Irrien festa mundialean, pailazoak, lagun bihurriak eta gonbidatu bereziak bilduko dira.

Pailazo zein zale, barre, kantu eta dantza ariko dira guztiak, disko berriko abesti batzuk, lehenagokoak eta herrikoiak tartekatuz.

Pailazoez gain, Xabier Zabala musikaria eta Idoia Uralde kantaria oholta gainean izango dira zuzeneko musika eta ahotsa eskainiz.

Kukuka Lasarte-Oriako antzerki eta dantza eskolak antolatu du saioa, Zubietako Herri Batzarra eta Usurbilgo Udalaren laguntzaz.

Sarrerak Bordatxon salgai, 6 eurotan.



SARRERAK BORDATXON DAUDE SALGAI, 6 EUROTAN.

Ziortza Gazte Elkartekoak, ikasturte berria martxan

Joan den ostiralean bildu ziren Ziortza Gazte Elkartekoak lehen gazte taldearekin, ikasturte berria martxan jartzeko. Egunotan, beste bi hitzordu antolatu dituzte beste bi taldeekin.

Urriaren 28an, osteguna, DBH 3. mailakoekin (1996. urtean jaiotakoak) eta egunbete beranduago, urriaren 29an, DBH 2. mailakoekin (1997. urtean jaiotakoak).

Bi hitzorduak apaiz-etxean, arratsaldeko 19:30etan burutuko dira. Antolatzaileek gogorarazten dutenez, adin tarte hauetako ikasle orok gazte elkartearen parte hartzeko atea zabalik dute.

Ikasturteari buruzko informazio gehiago email honetan jaso ahal izango duzue: ziortzage@gmail.com.



APAIZ-ETXEAN ELKARTZEN HASTEKO HITZORDUAK JARRI DITUZTE.

San Praixkutako errifa

1 215 zenbakidun errifa izan da joan den San Praixku jaietan egindako zozketan saritu zutena. Mariskada ederra irabazi du zenbakiaren jabeak.

Ordu aldaketa

Asteburutik aurrera, egunak Amoztu eta gauak luzatuko dira. Neguko ordutegia indarrean sartuko da urriaren 31n. Goizaldeko 3:00etan erlojuak ordubete atzeratu beharko ditugu.



Datorren astelehenean

XV. Artisau Azoka

Urte garai honetan giroa gozatu ohi duen Artisau Azoka ospatuko da datorren astelehenean, ohi bezala, azaroaren 1ean. Eskuz eginiko askotariko produktuak ikusi eta erosi ahal izango dira frontoian. Osteratxoa egin eta hamaiketako ederra dastatzeko aukera ere eskainiko du azokak, goizeko hamaiketatik aurrera. Aitzagak itxita jarraitu arren, ekimenaren hamabosgarren edizio hau ere Aitzaga Kultur Elkarteak antolatu du.

Azaroko lehen astelehenak udazken parteko azoken garaia dakar Usurbila. Goiz pasa, frontoira hurbildu eta ikusgai egongo diren postuetatik barrena osteratxoa egiteko aukera. Azaroko lehen eguneko goizean, Aitzaga Kultur Elkartek antolatutako artisautza azoka bisitatzeko aitzakia ederra izango da beste behin. Hamabosgarren ediziora ailegatu den ekimenera Euskal Herriko txoko desberdinetan jatorria duten artisauak gonbidatu dituzte.

DENETARIK IZANGO DA

“Denetariko produktuez hornituriko hogeitu postu inguru jarriko dituzte frontoian”

Denetariko produktuez hornituriko hogeitu postu jarriko dituzte frontoian. Guztiek ezaugarri komun bat izango dute, eskuz eginiko gaiak direla. Gozoak, bitxiak, margolan eta eskulturak, esnekiak, ukenduak, zestoak, larruarekin egindako gaiak, egurrezko kateak, harriak, egur lanak, bastoiak, patea, gaztak, eztiak, margotutako teiak... Denetarik, bizilekua edo nork bere burua apaindu eta edertu nahi badu, elikatu edota zergatik ez, osasuna zaindu.



ARTISAUTZA AZOKAN, EUSKAL HERRIKO ARTISAUAK BILDUKO DIRA.

Usurbilgo ordezkariak

Huts egiten ez duten gertuko ordezkariak ez da faltako datorren asteleheneko hitzorduan. Herriko aurpegi ezagunak ere ikusiko baititugu postuen artean. Batetik, Martin Agirresarobe eztingintza postuarekin. Bestetik, lan tresnak erakusgai jarriko dituzte Alkartasuna Nekazaritza Kooperatibakoek.

Taloak eta gaztainak

Osteratxoa hasi, atsedenaldirako eten edota azokatik irteten baino lehen, sabela pozitu nahi duenarentzat, herri-tarrak arituko dira taloak prestatzen. Urte garai hau aintzakotzat hartuta, gaztaina erreak dastatzeko aukera ere emango dute.

Itxieraren gainetik, antolakuntzan

2006. urteko otsailaz geroztik Aitzagak itxita jarraitzen duela gogorazten dute artisautza azokako antolatuak. Egoitzaren izen bera daraman kultur elkartetik hain zuzen, egoerak bere horretan segi arren, bilguneak bizirik eusten diola, azaroaren 1eko moduko ekimenak antolatzen jarraitzen dutela gogorazten dute.

Azoka, Santu

Guztien Egunean

Eguna: azaroak 1, astelehena.

Ordutegia: 11:00etatik aurrera.

Tokia: frontoia.

Postuak: hogeitu guztira. Zestoak, egur lanak, gozogintza, bitxigintza, eskultura, pintura...

Gainera: taloak, gaztaina erreak.

Antolatuzailea: Aitzaga Kultur Elkartea.

Erle Eguna,

azaroa amaieran

Azaroa Artisau Azokarekin hasi eta Erle Egunarekin amaituko da. Erle Lagunak antolatutako ekimena, hilabete barru, azaroaren 28an ospatuko da. Hamabigarren edizio honetako egitarauan ere, erakusketa, gozogintzako salmenta postuak edota Euskal Herri mailako ezti lehiaketa eta saritutako ezti potoen enkantak ez dute hutsik egingo. Erle Eguna girotzeko musika izango da. Guztia datorren hileko azken igande goizean zehar.


Ea topatzen dituzuen hitz hauek hizki-zopan

Kaixo, gu Udarregi Ikastolako 5 urteko haurrak gara. 59 laguneko taldea osatzen dugu eta txango asko egiten ditugu. Urriaren 21ean Donostiako Akuariamera joan ginen trenez arrainak eta ikustera. Asko-asko zeuden eta guk denak ikusi genituen. Ea zuk hizki-zopa honetan han ikusitakoak aurkitzen dituzuen:

MARMOKA
DORTOKA
MARRAZOA
URPEKARIA
TXIRLA
IZARRA
KARRAMARRO
BALEA
SUGEA

K	G	M	A	R	M	O	K	A	P
A	B	A	L	E	A	H	I	J	K
D	O	R	T	O	K	A	R	S	T
L	M	N	Ñ	O	P	Q	R	S	T
Z	M	A	R	R	A	Z	O	A	X
Y	U	R	P	E	K	A	R	I	A
S	U	G	E	A	G	H	I	J	K
L	M	N	Ñ	T	X	I	R	L	A
O	P	I	Z	A	R	R	A	R	S
K	A	R	R	A	M	A	R	R	O

Usurbilera itzuli ginenean Zumetaren artelanaren azpian argazki eder hau atera genuen. Gustatu al zaizue?



UDARREGI IKASTOLAKO 5 URTEKO HAURRAK, MIKEL LABOA PLAZAN.

Xabier Olano eta Garazi Iturralde bikain, kayak surf-eko Munduko Kopan

Joan den urriaren 9an Cape Hatterasen (Ipar Karolina, AEB) jokatu zen kayak surf-eko Munduko Kopan parte hartu zuen Euskadiko Selektzioak. Bertako ordezkarien artean ziren, Garazi Iturralde eta Xabier Olano herritarak. Sei euskal kirolariak podium gainean amaitu zuten txapelketa. Olano eta Iturralde, bizitako esperientziarekin eta lortutako emaitzekin noski, gustura dira.

Egun bakarreko proba izan zen urriko bigarren larunbatean jokatu zena. Emaitzak azpimarratzeko modukoak; Garazi Iturralde bere mailan lehen postuan sailkatu zen eta Xabier Olano hirugarrean.

AMERIKAKO PROBA

“Euskadiko Selektzioarekin sei lagun joan ziren hara eta denak podium-era igo ziren”

Olano gustura dago proban egindakoarekin. “Parte hartze ona egin dudala uste dut, baina, olatu txikiak izan ditugula eta, nire %100 erakustetik oso urrun ibili naiz, gainontzeko kirolariak bezala. Baina kristoren olatuak izan ditugu (txikiagiak agian) eta ni horrekin kontent oso! Tutuak egiteko bikainak!”, adierazi du. Halere, bigarren eta laugarren postuen artean sailkatu ohi dela eta, gehiago entrenatu eta bere entrenatzaile Eduri irabazteko gogoz jarraitzen duela gaineratzen du usurbildarrak.

Garaziren esanetan, “neure burua oso gustura ikusi dut. Ondo ibili naiz eta garrantzitsuena, olatuak hartzen asko disfrutatu dut, batzuetan hemengo olatuak hartzen baino gusturago ibili naiz han astebetean”. Ez da gutxiagorako, emaitzak ere kontuan hartzen badira. Iturraldek gaineratzen duenez, “garrantzitsuak iruditzen zaizkit, izan ere, handik seiok etorri ginen podiumetik igarota, denok igo ginen”.



AURTENGO DENBORALDIA AMAITU BERRI DUTE BI KIROLARI GAZTE HAUEK.

Euskadiko selektzioa, onenen artean

Urtean zehar jokutzen diren mundu mailako bost probetan azkena izan da AEB-tan jokatu dena. Bost proba hauetan lortutako puntuen baturarekin sailkapen orokorra egingo da eta Olanok gaineratzen duenez, “Mundakakoan, Santa Cruzekoan (Portugal) eta Outer Banks-ekoan (Ipar Karolina, AEB) hartu dugu parte. Beraz, Mundu mailan posizio onetan gaudelakoan nago”.

Santa Cruz eta Mundakako txapelketak aintzakotzat hartuta, Olanok mundu mailako txapelketen sailkapen orokorreko 10. postua eskuratua du.

Datorrena prestatzera

Proba honen ostean, lehia garaia amaitu da eurentzat, ez ordea entrenamendu saioak. “Orain denboraldia amaitu da, baina nik entrenatzen jarraitzeko asmoa dut, nahiz eta denbora gutxi izan”, adierazi du Garazik.

Laster, Angelun

Xabier ere hurrengo denboraldiari begira dago. “Orain denboraldi berria hasteko lanean ari gara, bai ibaiko modalidaderako baita itsasokorako ere”, adierazi du. Tartean ordea aste gutxi barru, Angelun ospatuko den Waveski txapelketan parte hartzeko asmoa dute.

Izurde artean entrenatzen

Bidaiatik bueltan, entrenamendu blekuak ere ez dituzte berehalakoan ahaztuko. “Hondartzatik metro oso gutxitara genuen etxea, eta beraz bakoitzak nahi genuenean uretara joateko aukera genuen. Goizeko zaspitan sartu izan gara uretara, eguzkia ateratzen ikusten genuen. Gainera pelikano eta izurde artean aritu gara olatuak hartzen. Olatuak nahiko txikiak izan dira, baina kalitate onekoak, tutua egiteko modukoak”, adierazi du Iturraldek. Eta ederki baliatu ditu zubietarrak. Txapelketa osoko olatu puntuatu onena lortu baitzuen.

Kirola egitera joan dira AEB-tara, baina lagun artean bidaiatu dute.

“Txapelketa oso polita izan da. Nahiko jende bildu da eta giro polita nagusitu da denen artean. Hemendik sei euskaldun joan ginen. Han kanadar batekin, pare bat ingelesekin eta beste hainbat estatubatuarrekin topatu ginen”, adierazi du Garazik. Familia giroa aipatzen du Xabierrek. “Txapelketa betiko moduan giro bikainean, gure kirol familia txiki honetan denak elkar ezagutzen dugu eta egun osoan hondartzan bromaka aritzen gara, ingelesa “txapurreatzen”, oso ondo! Azken egunean barbakoa bat antolatu genuen talde bakoitzak janaria zeramararik”, adierazi du Olanok.

Agenda !!

Urriak 27 asteazkena
17:00etan Elikadura hizpide
Aginagan, Arrate Zahar Egoitzan.

Urriak 29 ostirala
20:00etan Euskal presoen eskubideen
aldeko elkarretaratzea Mikel Laboa
plazan.

Urriak 30 larunbata
16:30ean Gaztelekuaren aurkezpena
frontoian eta gero Gaztelekuan.
-18:00etan, Porrotx eta Marimotots,
Zubietako frontoian. Sarrerak
Bordaxon salgai, 6 eurotan.
19:00etan, Kantu-jira frontoitik
abiatuta. Usurbilgo Kantu Taldea.

Azaroak 3 asteazkena
19:30ean, Imanol Muruaren
"Loiolako Hegiak", solasaldia Sutegin.

Goardiako farmaziak

Urriak 28, osteguna
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Urriak 29, ostirala
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Urriak 30, larunbata
Iturralde, Bordaberri 1 Usurbil
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Urriak 31, igandea
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 1, astelehena
De Miguel, Nagusia32 Lasarte

Azaroak 2, asteartea
Urbistondo, San Franzisko 1 Lasarte

Azaroak 3, asteazkena
Orue, Jaizkibel 2 Lasarte

Azaroak 4, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromo etor. 6 Lasarte

Azaroak 5, ostirala
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Azaroak 6, larunbata
Oa, Kontseju Zarra 11 Usurbil
Gil, Nagusia 24 Lasarte

Azaroak 7, igandea
Gil, Nagusia 24 Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Chucla farmazia (22:00-09:00),
Kandaberaz, 48, Hernani (943 551 793)
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Larunbat honetan, kantu-jira

Hilabeteko azken larunbate-
an elkartu ohi da
Usurbilgo Kantu Taldea.
19:00etan jarri ohi dute hitzordua
frontoian, eta handik abiatzen dira
kantu-jira modukoan. Larunbat
honetan ere, gauza bera egingo dute.
Euskal kantuak abesteko gogoz
bazaude, aukera ederra duzu.

Duela hilabete, Usurbilgo Kantu
Taldekide kide batzuk Aralarren izan
ziren kantuan.

"Han egiten dute lan, Aralarko
Beaskingo txabolan, Jon Harreguy
usurbildar artzain gazteak eta bere
bikotea den Martina Urbistondok,
Ortzi beren seme bizkorrekin bate-
ra", hala adierazi digute argazki hau
bidaltzarekin batera.



KANTU TALDEKO KIDE BATZUK
ARALARREN IZAN ZIREN, DUELA
HILABETE PASATXO.

tan egingo dute zeharkaldia. Eta ber-
tan pasatuko dute negua.

"Xalbadorren heriotzean" abestuz
agurtu ginen. Abesti honek, paraje
haietan, aparteko audioa zeukala kon-
turatu ginen, aparteko zirrara egiten
zuela. Agian, han, Urepeleko Xalbador
ibili zebilen bakoitzaren baitan". Ba
larunbat honetan, kantu hau eta beste
hainbat abesteko aukera izango da,
arratsaldeko 19:00etan hasita.

Sendategian egindako artelanak, Sutegin

Sendategiko gaixoen pinturak
eta esku-lanak bilduko ditu
urriaren 26an zabalduko den era-
kusketak. Hala nola, sendategikoek
egiten dituzten jardueren argazkiak
ere.

Aurten, sendategian bertan lehen
pintura lehiaketa antolatu dute eta
oso harrera ona izan du.

Urriaren 26tik azaroaren 2ra arte,
Sutegin ikusgai.

Eta ondoren, pintura eta eskultura erakusketa

Sendategiko lanen erakusketa
Samaitu eta Manu Urbieta eta
Tomas Esnaolaren margolanak eta
eskulturak ikusgai izango dira
Sutegin. Azaroaren 5etik abenduaren
4ra bitartean, ikusgai izango dira
Sutegiko erakusketa aretoan.

Asteburuetan bisitatu ahal izango
da erakusketa: ostiral eta larunbate-
tan, 18:30-20:00 artean eta igandee-
tan, 12:00-14:00 artean.

ETXEBIZITZA

- 3 logelako pisu bat alokatzen da Muna Lurra kalean. Telefonoa: 661 43 63 53
- Etxebizitza salgai Santuenean. Hiru logela, sukaldea, komuna. 60 metro karratu. 665 736 896 (Inaki).
- Pisu bat hartuko nuke alokairuan Usurbilen, bi hilabetez. Presazkoa da. 671 45 00 90.
- Lokala alokatzen da Atxegalden (lehen Truke zena). Prezioa: 360 euro. 943 373 414.
- Orioko Alde Zaharrean, etxebizitza bat salgai. Bi logela, bainu gela, sukaldea-sala. 661 679 691.
- Pisu bat alokatuko nuke, 3 logelakoa eta amueblatua. 646 086 109.
- Logela bat alokatuko nuke edo konpartitzeko etxe batean sartuko nintzateke alokairuan. Nire telefono zenbakia: 648 005 159.
- Apartamentu edo logela bat alokatuko genukeen bikote bat gara. 677866495
- 60 metro karratuko pisua salgai kaxkoan. 2 gela, sala, sukaldea, komuna eta trasteroa. Dena berrituta eta amueblatuta. Igogailua, hiru balkoi eta oso eguzkitsua. Tf: 686 969 112.
- Etxebizitza alokatzen da, Oropesa de Mar (Castelló) herrian. 655 731 915.
- Lau logeletako etxebizitza salgai Atxegalden. Ganbara ere badu. Aukera dago etxe azpian garajea erosteko. 699720940
- Salgai dago Usurbilen etxe familiar polit bat, kiroldegir ondoan. Tel. 646.041915 Amaia.
- Kale Nagusia 10, lokal komertziala salgai, 133 m2. 943 364 637 / 943 365 299
- Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 606 457 112.
- Neska euskaldunak pisu bat hartuko luke errentan Usurbilen. Interesatuak deitu 647 486 232.
- Landetxe bat salgai Alfaron (Errioxa). Astebukaerak eta oporraldietarako egokia. Terreno eta pistinarekin. Herriatik 1,2 kilometrotara. 2 logela, egongela txime-nearekin, sukaldea, komuna, portxea. 675702428 (gautz).
- Etxe bat konpartitzeko pertsona baten bila nabil. Deitu 20:00etatik aurrera 661568471.
- Gela bat alokairuan pertsona serio batentzat, pisu berri batean. 300 euro, gastuak aparte. Usurbil inguruan. 609 901 734 edo 943 575 788.
- Muna Lurra kalea 16, 3.C salgai. Eguzkitsua eta berri-tua. Interesatuak deitu: 637225620.
- Pisu bila nabil Usurbilen. Alokairuan nahi nuke. 664 885 737.
- 95metro karratuko etxebizitza salgai Kaxkoan. Erreforma behar du baina aldatetarako egiteko aukera asko. 141.000 euro. 943 36 98 35 (21:00etatik aurrera).
- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailen. Kalezarreko eremu urbanoan. 665720913.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Santuenea 26an 60 metro karratuko etxea daukagu salgai. 2 gela, sukaldea handia, etxeak kanpokaldera ematen du, gasa eta kalefazioa ditu. 200.000. 666539284.
- Etxe berria salgai Kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.
- Lasarten apartamentu bat salgai, egoera onean. Erdigunean. Toki lasaia eta berritu berria. Bikote batentzat egokia. 657708866

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Txaramunto auzoan 15 metro karratuko garaje itxi bat alokatzen da 85 euro. Interesatuak deitu: 661 618 970.
- Garaje lerroa salgai Munalurran. 678 225 241.
- Munalurra auzoan jarraian dauden garajeko bi marra

- daukat salgai. Biak batera edo banaka. 678225241.
- 33m karratuko lokal bat alokatzen dugu Atxegalden 280 eurotan. Sarreara egokia. 943373414
- 2006ko Ford Transit Td/240s Kombi6 salgai. Ioseba 669 074 698.
- Zazpi plaza dituen Kia Carnival bat saltzen dugu. 2004 urtekoa da eta 118.000 km dauka, ondo zaindua, beti garajean egondakoa. 669353942.
- Bizkarre kalean garaje itxi bat daukagu salgai. Altura bikoitza du eta altilo bat egina dauka. Interesatuak deitu 943576957 telefonora.
- Karabana bat salgai. Modelo zaharra da baina egoera oso onean dago. Prezio interesgarria. 646514494
- Mitsubishi L200 bat salgai. SS-AZ eta egoera onean. 646514494
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metroko altuera. 943361265.
- 50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Arisitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.

LANPOSTUAK

Lan-eskaerak

- Goizetan ume bat zaintzeko emakume baten bila gabil-tza. Esperientzia eta erreferentziak eskatuko dira. 646130387.
- Iratxo tabernan pizza banatzaile baten bila gabil-tza. Banaketa afariarako garaien egingo da. Beharrezkoa motorra edo kotxea izatea. 943369135
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska baten bila gabil-tza. Nahiago dugu Usurbilgoa eta euskalduna izatea. Interesatuak deitu 676355635 telefonora.
- LH-n edota DBH-n klase partikularrak emateko prest egoingo al zinategi? Hala bada, pasa zaituz Udarregi Ikastolako idazkaritzatik izena ematera.
- Astebukaeratan lan egiteko, zerbitzari moduan aritzeko pertsona bat behar dugu. 943 36 67 10.

Lan-eskaintzak

- Neska bat eskaintzen da, etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile aritzeko. Gidabaimena eta disponibilitate osoa. 618722117.
- Lehen Hezkuntzako diplomatuak klase partikularrak ematen ditu ikasgai guztietan, Usurbilgo lokalean. 688 681 557 edo imakulada@gmail.com
- Neska bat eskaintzen da orduka zein interna moduan lanean aritzeko Usurbil eta inguruetan etxeko lanak egiteko edo pertsonak helduak zaintzeko. 696537247
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 603794547.
- Emakume bat eskaintzen da etxekolanak egiteko orduka edo tabernan lanean aritzeko. 635217362
- Mutil gazte bat eskaintzen da baserri edo baratzeko lanak egiteko, mendia garbitzeko edo igelsterizta lanetan aritzeko. 677593772.
- Etxeko lanak egiteko prest nago, arratsalde, baita jende nagusia edo gaztetxoak orduka zaintzeko ere. Telefono zenbakia: 606 800 837.
- Neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, pertsona helduak zein haurrak zaintzeko edo ostalaritza lanetarako. Esperientziaduna. 658107757
- 23 urteko mutila, Usurbilen lan bila dabil barrako zerbitzari edo sukaldari laguntzaile gisa lan egiteko urte osorako. Lanean berehala hasteko: 622 065 461 (Alex).
- Neska bat, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko prest, goizez 8:00-15:00 artean. 679 742 413.
- Astebukaeratan edo astean zehar goizeko 10:00etatik arratsaldetako 16:00ak arte garbiketara lanak edo pertsona helduen zaintzan lan egingo nuke. Interesatuak deitu 618410123
- Emakume batek interna moduan pertsona helduak zein haurrak zaintzeko lana bilatzen du. 660554968
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 676188411
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 630438571
- Gizon bat eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko edo

- baserriko lanak egiteko. 662461568
- Jardineritza lanak egiten ditut, txukun eta modu onean. Inaki: 677 44 31 40.
- Saltzaile, zerbitzari, pertsona helduak zein haurrak zaintzen edo garbiketara lanak egingo nituzke. Interesatuak deitu 656446835
- Mekanikari gisa, baserrian, edota helduak zaintzeko prest nago. 648 785 026.
- Emakumea interna edo goiz zein arratsalde orduka lan egiteko prest. 648 785 026.
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Mendingi edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
- Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608 835 033.
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646 717 676.
- Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943 368 574.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620 185 927.
- Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685 716 774.
- Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630 768 325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxeko-lanak egiteko. 679742413.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Administrazio perfl guztiak eta EGA prestatzeko klase partikularrak ematen ditut. 656 723 650 (Jorge).
- 1'50eko ohe osoa salgai. Somierra eta koltxoia. Prezio onean. 943 366 589.
- Gurrildun aulki bat daukagu. Behar duen edozeini emango genioke. 943363201.
- Bugaboo markako umeentzako kotxea daukat salgai. Kapazoa eta silla ditu eta burbuja eta zakutxo ere bai. Interesatuak deitu 616586851 telefonora.
- Su-egurra salgai modu onean. 689937338 Jesus Mari.
- 7 gazteko lagun taldea gara eta lokal bat alokairuan hartuko genuke. 617 802 088.
- Flex markako ohe artikulatua eta latex koltxoia salgai. 700 euro. 667521874
- Wii konsolaren softwarea aldatzen da segurtasunaren kopia kargatu ahal izateko, DVDaren edo USBaren bidez txipik instalatzeko beharrik gabe. Kontsola ez da irekitzen eta horrela, garantia ez da galtzen, dena softwarearen bidez egiten da. 635729637
- Argazki zaharrak berritzen ditut. Bideoak montatzen ditut bai bideoarekin, bai argazkiekin DVD formatoan. 635729637
- Aiako baburra salgai, prezio onean. 670410273.
- Zaldi bat jartzeko lur sail bat edo ikulu bat alokatuko nuke Usurbil edo inguruan: 616260451
- Ostalaritzako makinaria, kafetegiko altzariak salgai; aulkia, mahaiak, kafe-makina,... 607 389 570 (Mireia). istergo@hotmail.com
- Informatikaria naiz. Ordenagailuen edo informatikari buruz edozein zerbitzu behar izanez gero. Oskar: 609 468 759 oskarsm@hotmail.com
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Inaki)
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
- Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoia. Maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173 466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220 925.



Urte askuan ta txapela kaskuan! 5 urte handi dagoeneko! A ze gizon-txo! Zorionak eta muxuak Harriet, Amatxo eta Aitaxoren partez!



Zorionak Unax! Urriaren 30ean 6 urte egingo dituzunez, muxu handi asko, Irati, ama eta aitaren partez.



Zorionak Xabi, Ioritz eta Beñat! Umm! A ze marmitako goxoa!! Zorionak hirurei, urriak 2, azaroak 1 eta 2an eskua osatu duzue. Muxu handi bat eta jarraitu orain arte bezain jator.



Zorionak zure urtebetetzear Zorionak, ta urte askotarako Zorionak belarririk tiratzean Zorionak ta musu bat zuretzako, Ainara. Etxekoak.

HILDAKOAK

M. Josefa Benito Hernandez
91 urterekin hil zen
Urriaren 22an



Jesus Calleja Puente
70 urterekin hil zen
Urriaren 25ean



HITZALDIA

Imanol Murua

"LOIOLAKO HEGIAK" azaroak 3, 19:30h Sutegi

MUSIKA

Maialen Lujanbio eta Judith Montero

"ORNITORRINKUS" azaroak 7, 19:00h Sutegiko erakusketa gela

DOKUMENTALA

Txaber Larreategi eta Josu Martinez

"DEBEKATUA DAGO OROITZEA" azaroak 5, 22:30h Sutegi

ANTZERKIA

Lakrikun antzerki taldea

"PREST GAUDE!" azaroak 6, 19:00h Sutegi

HITZA ETA MUSIKA

Yolanda Arrieta eta Juantxo Zeberio

"OFF-ON" azaroak 13, 19:00h Sutegi

Noaua!
WWW.NOAUA.COM



NOAUA!KO KULTURALDIA 2010 10/11
AZAROA





Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

 **Errazkin S.L.**

igeltseritza orokorra
943 372 679 eta 649 435 470

kale nagusia 47, behea A

Jose Aizpurua Unanue

 teilatuak eta fatxadak

943 69 68 52
620 80 01 86

Obaba kalea 29, Asteasu



LATAILLADE

 **ITURGINTZA**

Gas, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

 **Enrique Alonso**

ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Javier Orbegozo

GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA
ARANGUREN

ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izagirre

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Elektrizitatea
Goiz Argi etxea nº 37
Kale Zahar Auzea



Antonio
URRUZOLA

AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Imanol

AROSZTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



MARGOAK - PAPERAK

FERNANDO
PINTORAK

ENPAPELAKETAK eta
PINTURAK OROKORREAN
nagusia, 1 TEL: 943 36 60 19



 **PLAKODUR**

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78